

JUSTIZIA ETA GIZA
ESKUBIDEEN SAILADEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y
DERECHOS HUMANOS**AGINDUA, JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN
SAILBURUARENA, TERRORISMOAREN
BIKTIMEI LAGUNTZA INTEGRALA EMATEKO
SISTEMA GARATZEKO DEKRETUA
ALDATZEKO DEKRETU-PROIEKTUA ALDEZ
AURRETIK ONARTZEN DUENA.****ORDEN DE LA CONSEJERA DE JUSTICIA Y
DERECHOS HUMANOS, POR LA QUE SE
APRUEBA CON CARÁCTER PREVIO EL
PROYECTO DE DECRETO DE
MODIFICACIÓN DEL DECRETO DE
DESARROLLO DEL SISTEMA DE
ASISTENCIA INTEGRAL A LAS VÍCTIMAS
DEL TERRORISMO.**

Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren 2025eko azaroaren 20ko Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion Terrorismoaren Biktimei Laguntza Integrala emateko Sistema Garatzeko Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua egiteko prozedurari.

Mediante la Orden de 20 de noviembre de 2025, de la consejera de Justicia y Derechos Humanos, se inició el procedimiento para la elaboración del Proyecto de Decreto de Modificación del Decreto de Desarrollo del Sistema de Asistencia Integral a las Víctimas del Terrorismo.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak 12. artikuluan xedatzen duenez, «xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko titularren aginduz hasiko da».

La Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento del Elaboración de Disposiciones de Carácter General dispone, en su artículo 12, que «el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general se iniciará por Orden de la persona titular del Departamento competente por razón de la materia sobre la que versen».

Lege horren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, «xedapen orokorren Proiektuak idatzi ondoren, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik, hasteko agindua eman duen organoak aldez aurretik onartu beharko du testu artikulatua».

De conformidad con lo establecido en el artículo 15 de dicha Ley «una vez redactados los proyectos de disposiciones de carácter general, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, el texto articulado correspondiente deberá contar con la aprobación previa acordada por el órgano que haya dictado la orden de inicio».

Adierazitakoaren ondorioz, honako hau

En virtud de lo anteriormente expuesto,

EBAZTEN DUT**RESUELVO**

Lehenengoa.- Aldez aurretik onartzea Terrorismoaren Biktimei Laguntza Integrala emateko Sistema Garatzeko Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua.

Primero.- Aprobar con carácter previo el Proyecto de Decreto de Modificación del Decreto de Desarrollo del Sistema de Asistencia Integral a las Víctimas del Terrorismo.

Bigarrena.- Dekretua aldatzeko proiektuaren prozedura izapidetzen jarraitzeko agintzea, Hasteko Aginduan eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko

Segundo.- Ordenar la continuación de la tramitación del procedimiento del proyecto de Modificación del Decreto, de conformidad con los trámites establecidos en la Orden de Inicio y

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 66 28 – e-mail: derechos-humanos@euskadi.eus





6/2022 Legean ezarritako izapideen arabera,
dekretua onar dadin.

en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del
Procedimiento del Elaboración de Disposiciones
de Carácter General, a los efectos de la
aprobación del decreto.

La consejera de Justicia y Derechos Humanos
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ

XX/2025 DEKRETU PROIEKTUA, XXkoa, terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen dekretua aldatzen duena.

Dekretu honen xedea da azaroaren 9ko 290/2010 Dekretua aldatzea, terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duena.

Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen Dekretuaren aplikazioan bildutako esperientziak agerian utzi du hobekuntzak egin behar direla biktimen errealitateari erantzun eraginkorragoa eta egokiagoa emateko, bereziki terrorismoaren biktimek tratamendu psikologikoak, psikosozialak eta psikopedagogikoak jaso ahal izango dituztela bermatzeko. Hobekuntza horien helburua da administrazio-jarduna optimizatzea eta erakundeek biktimen beharrei erantzun arin eta eraginkorra emateko duten gaitasuna indartzea.

Egindako aldaketen helburua da terrorismoaren biktimek tratamendu psikologiko, psikosozial eta psikopedagogikoak benetan eskuratzen dituztela bermatzea, eta baita oinarri arautzaileak Dirulaguntzei buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Legean xedatutakora eta Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren bidez definitutako Gobernuaren egitura berrira egokitzea ere. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen ditu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen ditu. Era berean, araudia eguneratu da, indarrean dauden xedapenekin lerrokatzeko. Azken batean, erreforma honekin koherentzia arauemailea, segurtasun juridikoa eta kalitatea bermatzen dira emandako zerbitzuetan.

18/2024 Dekretuaren 20. artikuluan ezarritakoaren arabera, Justizia eta Giza Eskubideen Sailari dagokio biktimen eta memoriaren politikak zuzentzea eta koordinatzea.

Ondorioz, Justizia eta Giza Eskubideetako sailburuaren proposamenez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorritik, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak xxxx (e) ko xxxaren xx (e) (a) n egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT

Lehenengo artikulua. Erreferentziak ordezkatzeko.

Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuan «Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza» adierazpenari

egiten zaizkion aipamen guztien ordezt, «Giza Eskubideen arloko zuzendaritza eskuduna» jarriko da.

Era berean, aipatutako 290/2010 Dekretuan «www.euskadi.net» erreferentziari egiten zaizkion aipamen guztien ordezt «www.euskadi.eus» jarriko da.

Bigarren artikulua. Aldatu egiten dira Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 3. artikulua 1. eta 4. paragrafoak, eta honela idatzita geratzen dira:

«1.- Giza Eskubideen arloko Zuzendaritza eskuduna Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren organo eskuduna da Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko ekainaren 19ko 4/2008 Legean araututako erreparazio- eta laguntza-prestazioen eskaerak koordinatzeko eta, hala badagokio, izapidetzeko, eta, horretarako, lege horren 25.1 artikuluan aurreikusitako eskumenak dagozkio.

4.- Giza Eskubideen arloan eskumena duen zuzendaritzari dagokio dekretu honen kapitulu eta atal hauetan aurreikusitako erreparazio- eta laguntza-prestazioen eskaerak izapidetzea:

- a) II. kapituluko kalte materialak ordaintzeko jarduketak;
- b) III. kapituluko kalte materialak prebenitzeko laguntzak;
- c) IV. kapituluko laguntza juridikorako laguntzak;
- d) 22. artikuluan jasotako protesiak ezartzeko gastuak finantzatzeko laguntza ekonomikoak eta V. kapituluko 23. artikuluko eta hurrengoetako profesional pribatuek emandako tratamendu psikologikoa finantzatzeko laguntzak.
- e) VI. kapituluko 29. artikuluan jasotako beste gastu akademiko batzuk ordaintzeko laguntzak.
- f) 37. artikuluan aurreikusitako behin-behineko etxebizitzaren alokairu-gastuak finantzatzeko laguntza ekonomikoak.»

Hirugarren artikulua. Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 12. artikulua aldatzea. Honela geratuko da:

«Giza eskubideen arloan eskumena duen zuzendaritzari dagokio prozedurak izapidetzea eta kalte-ordainak eta konponketak ordaintzea, eta giza eskubideen arloan eskumena duen sailburuordetzako titularrari dagokio kapitulu honetan araututako prozedura eta ordainketa horiei buruzko ebazpenak ematea .»

Laugarren artikulua. Aldatu egiten dira Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 13. artikulua 2. eta 4. paragrafoak, eta honela idatzita geratzen dira:

«2. Nahitaezko datu edo dokumenturen bat falta denean, interesdunari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

4. Giza Eskubideen arloko zuzendaritza eskudunak prozedura modu egokian gauzatzeko behar duen beste edozein informazio eskatu ahal izango die polizia-agintariei, beste administrazio publiko batzuei, Fiskaltzari edo jurisdikzio-organoei, betiere Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan ezarritako muga barruan».

Bosgarren artikulua. Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 15. artikuluen 1. eta 3. paragrafoak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

«1. Giza eskubideen arloan eskumena duen sailburuordetzako titularrak ebatziko du laguntza-eskaera, prozeduraren instrukziotik eta egindako kalteen baloraziotik ondorioztatzen dena kontuan hartuta, eta haren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio giza eskubideen arloan eskumena duen saileko titularri.

3. Gehieneko epea igaro eta ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, baietsizat joko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 24. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako».

Seigarren artikulua. Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Legearen 16. artikuluen 2. paragrafoa aldatzen da.

Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 16. artikuluen 2. paragrafoan, «Herrizaingo Saileko Segurtasun Sailburuordetzako organo eskuduna» esamoldearen ordez «Segurtasun Saileko organo eskuduna» jarriko da.

Zazpigarren artikulua. Aldatu egiten da Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 17. artikuluen 2. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«2. Nahitaezko datu edo dokumenturen bat falta denean, interesdunari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko agiriak aurkezteko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 68. artikuluan aurreikusitakoaren arabera».

Zortzigarren artikulua. Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 18. artikulua 2. paragrafoa aldatzen da.

Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 18. artikulua 2. paragrafoan, «Herrizaingo Saileko Segurtasun Sailburuordetzako organo eskuduna» esamoldearen ordez «Segurtasun Saileko organo eskuduna» jarriko da.

Bederatzigarren artikulua. Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 19. artikulua 1. eta 3. paragrafoak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

«1. Giza eskubideen arloan eskumena duen sailburuordetzako titularrak ebatziko du laguntza-eskaera, prozeduraren instrukziotik ondorioztatzen dena kontuan hartuta, eta haren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio giza eskubideen arloan eskumena duen saileko titularrari.

3. Gehieneko epea igaro eta ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, baietsizat joko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 24. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako».

Hamargarren artikulua. Aldatu egiten da Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 20. artikulua 7. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«Giza eskubideen arloan eskumena duen sailburuordetzako titularrak gehienez ere sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko du laguntza-eskaeraren ebazpena. Haren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio giza eskubideen arloan eskumena duen saileko titularrari».

Hamaikagarren artikulua. Aldatu egiten da Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 22. artikulua 4. paragrafoa, eta honela idatzita geratzen da:

«4. Giza eskubideen arloan eskumena duen sailburuordetzako titularrak gehienez ere sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko du laguntza-eskaeraren ebazpena. Haren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio giza eskubideen arloan eskumena duen saileko titularrari.

Gehieneko epea igaro eta ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, baietsizat joko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 24. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako».

Hamabigarren artikulua. Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 23. artikulua bigarren paragrafoari bi lerrokada gehitzen zaizkio, eta 4. paragrafoa aldatzen da. Honela geratzen dira idatzita:

«2. 4/2008 Legearen 19. artikuluan aipatzen diren profesional pribatuek emandako tratamendu psikologikoa finantzatzeko laguntza ekonomikoak eskuratzeko, honako hauek eskatu ahal izango dira:

- a) Tratamenduaren beharra Euskal Autonomia Erkidegoan egindako ekintza terroristen ondorio izatea, edo, hortik kanpo gertatu arren, kaltetutako pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoan helbidea izatea.
- b) Tratamenduaren beharra egiaztatzea, Osasun Zerbitzu Publikoko medikuak emandako ziurtagiriaren bidez.

Laguntza ekonomikoa tratamenduaren aurretik eta zuzenean emango zaio onuradunari, eta agindutako tratamenduaren kostua ordainduko du, 3.500 euroko gehieneko mugarekin tratamendu individualizatu bakoitzeko, hargatik eragotzi gabe emandako laguntza modu berezian handitu ahal izatea diagnostiko medikoaren bilakaera ikusita.

Laguntza ekonomikoa mugaeguneratutako hiruhilekoka jasoko da, gastuen fakturak eta ordaindutako ordainsariak aurkeztu ondoren. Aurrekoa gorabehera, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE), Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera (BGD) edo bereziki kalteberak diren pertsonak jasotzen dituzten pertsonen kasuan, laguntza ekonomikoa zuzenean ordaindu ahal izango zaie laguntza psikologikoa ematen duten profesionali, laguntza psikosoziala eta psikopedagogikoa barne.

Zaurgarritasun-egoera Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek emandako txostenaren bidez egiaztatu ahal izango da .»

«4. Giza eskubideen arloan eskumena duen sailburuordetzako titularrak gehienez ere sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko du laguntza-eskaeraren ebazpena. Haren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio giza eskubideen arloan eskumena duen saileko titularrari .»

Gehieneko epea igaro eta ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, baietsizat joko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 24. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako .»

Hamahirugarren artikulua. Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 28. artikulua 2. paragrafoa aldatzen da.

290/2010 Dekretuaren 28. artikulua 2. paragrafoan, «Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoa» esamoldearen ordez «Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa, eta ondorengo aldaketak» jarri da.

Hamalagarren artikulua. Aldatu egiten da Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 36. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«Ez dira okupatutzat joko Bizigune Etxebizitza Hutsen Programa arautzen duen abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuaren 4. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako 35. artikulua 1. paragrafoan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten pertsonen ohiko etxebizitza libreak, baldin eta Giza Eskubideen arloan eskumena duen zuzendaritzak onuradunaren izaerari buruzko txosten loteslea ematen badu».

Hamabosgarren artikulua. Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 37. artikulua 2., 5. eta 6. paragrafoak aldatzen dira, eta honela geratzen dira idatzita:

«2. Laguntza honen onuradun izan ahalko dira jarduera terroristekin lotutako jazarpena, mehatxuak edo hertsapena jasaten duten pertsona fisikoak, segurtasunaren arloan eskumena duen sailak egiaztatutakoaren arabera.

5. Giza Eskubideen arloan eskumena duen zuzendaritzak ofizioz egingo ditu espedienteak ebazteko beharrezkoak diren instrukzio-egintzak, eta, nolana ere, segurtasun-arloan eskumena duen sailari eskatuko dio eskatzaileak jasandako jarduera terroristekin lotutako jazarpen-, mehatxu- edo derrigortze-egoera baten berri eman dezala. Txosten hori nahitaezkoa eta loteslea izango da, eta gehienez ere 10 eguneko epean egin beharko da.

6. Giza eskubideen arloan eskumena duen sailburuordetzako titularrak gehienez ere sei hilabeteko epean eman eta jakinaraziko du laguntza-eskaeraren ebazpena. Epe hori igaro eta ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskaera administrazio-isiltasunez baietsitatzat joko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 24. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako».

Hamaseigarren artikulua. Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarria aldatzen da.

Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian, «Herrizaingo Saila, sailburuaren agindu bidez» esapidetaren ordeztu, «segurtasunaren arloan eskumena duen saila, sailburuaren agindu bidez» jarri da.

Hamazazpigarren artikulua. Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarria aldatzen da.

Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian, «Herrizaingo Saila» esamoldearen ordeztu, «Segurtasunaren arloan eskumena duen saila» jarriko da.

Hemezortzigarren artikulua. Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren azken xedapenetako lehena aldatzen da.

Terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoan, «Herrizaingoko sailburua» esamoldearen ordezt, «segurtasunaren arloan eskumena duen saileko titularra» jarriko da.

Azken xedapen bakarra. Indarrean sartzea

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen,

Lehendakaria,

IMANOL PRADALES GIL

Justizia eta Giza Eskubideetako sailburua,

MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LOPÉZ

PROYECTO DE DECRETO XX/2025, de XX, de modificación del Decreto de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo.

El presente decreto tiene por objeto la modificación del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo.

La experiencia acumulada en la aplicación del Decreto de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo ha evidenciado la necesidad de introducir mejoras que permitan ofrecer una respuesta más eficaz y ajustada a la realidad de las víctimas, especialmente para garantizar el acceso efectivo de las víctimas del terrorismo a tratamientos psicológicos, psicosociales y psicopedagógicos. Estas mejoras buscan optimizar la operativa administrativa y reforzar la capacidad institucional para ofrecer una respuesta ágil y eficaz a las necesidades de las víctimas.

Las modificaciones introducidas tienen como finalidad garantizar el acceso efectivo de las víctimas del terrorismo a tratamientos psicológicos, psicosociales y psicopedagógicos, así como adaptar las bases reguladoras a lo dispuesto en la Ley 20/2023, de 21 de diciembre, de Subvenciones, y a la nueva estructura del Gobierno definida mediante el Decreto de 18/2024, de 23 de junio del Lehendakari, de creación supresión y modificación de los Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de estos. Asimismo, se actualiza la normativa para alinearla con las disposiciones vigentes. En definitiva, con esta reforma se garantiza coherencia normativa, seguridad jurídica y calidad en los servicios prestados.

De conformidad con lo establecido en el artículo 20 del mencionado del Decreto 18/2024 corresponde al Departamento de Justicia y Derechos Humanos la dirección y coordinación de las políticas de víctimas y de memoria.

En su virtud, a propuesta de la consejera de Justicia y Derechos Humanos, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi y habiéndose emitido los demás informes preceptivos, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día xxx de xxxx de xxxx,

DISPONGO

Artículo primero. *Sustitución de referencias.*

Todas las referencias contenidas en el Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo, a la expresión «Dirección de Atención a las Víctimas del Terrorismo» se sustituyen por «Dirección competente en materia de Derechos Humanos».

Así mismo, todas las referencias contenidas en el mencionado Decreto 290/2010 a «www.euskadi.net» se sustituyen por «www.euskadi.eus».

Artículo segundo. Se modifican los apartados 1 y 4 del artículo 3 del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo que quedan redactados en los siguientes términos:

«1.- La Dirección competente en materia de Derechos Humanos es el órgano de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente para coordinar y, en su caso, tramitar las solicitudes de las prestaciones reparadoras y asistenciales reguladas en la Ley 4/2008, de 19 de junio, de reconocimiento y reparación a las víctimas del terrorismo, correspondiéndole a tal efecto las atribuciones previstas en el artículo 25.1 de la misma.

4.- Corresponde a la Dirección competente en materia de Derechos Humanos la tramitación de las solicitudes de prestaciones reparadoras y asistenciales previstas en los siguientes capítulos y apartados de este Decreto:

- a) Las actuaciones para el resarcimiento por daños materiales del Capítulo II;
- b) Las ayudas para prevención de daños materiales del Capítulo III;
- c) Las ayudas para la asistencia jurídica del Capítulo IV;
- d) Las ayudas económicas para la financiación de gastos por implante de prótesis contemplados en el artículo 22 y la financiación del tratamiento psicológico prestado por profesionales privados del artículo 23 y siguientes del Capítulo V.
- e) Las ayudas para sufragar otros gastos académicos contempladas en el artículo 29 del Capítulo VI.
- f) Las ayudas económicas para la financiación de los gastos de alquiler de vivienda provisional contempladas en el artículo 37.»

Artículo tercero. Modificación del artículo 12 del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo que queda redactado en los siguientes términos:

«Corresponde a la Dirección competente en materia de Derechos Humanos la tramitación de los procedimientos y el pago de las indemnizaciones y reparaciones, y a la persona titular de la Viceconsejería competente en materia de derechos humanos dictar las resoluciones relativas a dichos procedimientos y pagos regulados en el presente Capítulo.»

Artículo cuarto. Se modifican los apartados 2 y 4 del artículo 13 del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo que quedan redactados en los siguientes términos:

«2. Cuando falte un dato o un documento preceptivo se requerirá al interesado para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá tener por desistido de su solicitud, de conformidad con lo previsto en el artículo 68 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

4. La Dirección competente en materia de Derechos Humanos podrá solicitar a las autoridades policiales, otras Administraciones públicas, Ministerio Fiscal u órganos jurisdiccionales cualquier otra información que precise para sustanciar de forma adecuada el procedimiento, siempre dentro de los límites fijados en el Reglamento (UE) 2016/679, de 27 de abril, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos, y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales».

Artículo quinto. Se modifican los apartados 1 y 3 del artículo 15 del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo que quedan redactados en los siguientes términos:

«1. La persona titular de la Viceconsejería competente en materia de Derechos Humanos resolverá la solicitud de ayuda atendiendo a lo que resulte de la instrucción del procedimiento y la valoración de los daños realizada, pudiendo sus resoluciones ser recurridas en alzada ante la persona titular del Departamento competente en materia de Derechos Humanos.

3. Transcurrido el plazo máximo sin haberse dictado y notificado la resolución, ésta se entenderá estimatoria, a los efectos previstos en el artículo 24 de la Ley de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas».

Artículo sexto. Se modifica el apartado 2 del artículo 16 del 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo.

En el apartado 2 del artículo 16 del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo, se sustituye la expresión «el órgano competente de la Viceconsejería de Seguridad del Departamento de Interior» por «el órgano competente del Departamento de Seguridad».

Artículo séptimo. Se modifica el apartado 2 del artículo 17 del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo que queda redactado en los siguientes términos:

«2. Cuando falte un dato o un documento preceptivo se requerirá al interesado para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su solicitud, de conformidad con lo previsto en el artículo 68 de la Ley de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas».

Artículo octavo. Se modifica el apartado 2 del artículo 18 del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo.

En el apartado 2 del artículo 18 del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo, se sustituye la expresión «al órgano competente de la de la Viceconsejería de Seguridad del Departamento de Interior» por «al órgano competente del Departamento de Seguridad».

Artículo noveno. Se modifican los apartados 1 y 3 del artículo 19 del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo que queda redactado en los siguientes términos:

«1. La persona titular de la Viceconsejería competente en materia de Derechos Humanos resolverá la solicitud de ayuda atendiendo a lo que resulte de la instrucción del procedimiento, pudiendo sus resoluciones ser recurridas en alzada ante la persona titular de la Departamento competente en materia de Derechos Humanos.

3. Transcurrido el plazo máximo sin haberse dictado y notificado la resolución, ésta se entenderá estimatoria, a los efectos previstos en el artículo 24 de la Ley de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas».

Artículo décimo. Se modifica el apartado 7 del artículo 20 del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo que queda redactado en los siguientes términos:

«La persona titular de la Viceconsejería competente en materia de Derechos Humanos dictará y notificará la resolución de la solicitud de ayuda en el plazo máximo de seis meses. Sus resoluciones podrán ser recurridas en alzada ante la persona titular de la Departamento competente en materia de Derechos Humanos».

Artículo undécimo. Se modifica el apartado 4 del artículo 22 del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo que queda redactado en los siguientes términos:

«4. La persona titular de la Viceconsejería competente en materia de Derechos Humanos dictará y notificará la resolución de la solicitud de ayuda en el plazo máximo de seis meses. Sus resoluciones podrán ser recurridas en alzada ante la persona titular de la Departamento competente en materia de Derechos Humanos.

Transcurrido el plazo máximo sin haberse dictado y notificado la resolución, ésta se entenderá estimatoria, a los efectos previstos en el artículo 24 de la Ley de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas».

Artículo duodécimo. Se añaden dos párrafos en el apartado dos y se modifica el apartado 4 del artículo 23 del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo que quedan redactados en los siguientes términos:

«2. Para acceder a las ayudas económicas para la financiación del tratamiento psicológico prestado por profesionales privados al que se refiere el artículo 19 de la Ley 4/2008, será exigible:

a) Que la necesidad del tratamiento derive de acciones terroristas cometidas en el territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi o que pese a haber acaecido fuera del mismo, la persona afectada estuviera domiciliada en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

b) Que se acredite la necesidad del tratamiento mediante certificación en tal sentido expedida por facultativo del Servicio Público de Salud.

La ayuda económica se concederá previa al tratamiento y directamente al beneficiario y sufragará el coste del tratamiento prescrito, con un límite máximo de 3.500 euros por tratamiento individualizado, sin perjuicio de que extraordinariamente pueda ampliarse la ayuda concedida a la vista de la evolución del diagnóstico médico.

La ayuda económica se percibirá por trimestres vencidos, previa presentación de las facturas de los gastos y honorarios abonados. Sin perjuicio de lo anterior, cuando se trate de personas perceptoras de la Renta de Garantía de Ingresos (RGI), del Ingreso Mínimo Vital (IMV) o de personas especialmente vulnerables, la ayuda económica podrá abonarse directamente a las personas profesionales que presten la asistencia psicológica, incluida la psicosocial y la psicopedagógica.

La condición de vulnerabilidad podrá acreditarse mediante informe emitido por los Servicios Sociales de Base.»

«4. La persona titular de la Viceconsejería competente en materia de Derechos Humanos dictará y notificará la resolución de la solicitud de ayuda en el plazo máximo de seis meses. Sus resoluciones podrán ser recurridas en alzada ante la persona titular de la Departamento competente en materia de Derechos Humanos.»

Transcurrido el plazo máximo sin haberse dictado y notificado la resolución, ésta se entenderá estimatoria, a los efectos previstos en el artículo 24 de la Ley de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.»

Artículo decimotercero. Se modifica el apartado 2 del artículo 28 del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo.

En el apartado 2 del artículo 28 del Decreto 290/2010 se sustituye la expresión «Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo» por «Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, y modificaciones posteriores».

Artículo decimocuarto. Se modifica el artículo 36 del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo que queda redactado en los siguientes términos:

«No tendrán la consideración de ocupadas las viviendas libres habituales de las personas en las que concurren las condiciones previstas en el párrafo 1 del artículo 35, a los efectos previstos en el artículo 4 del Decreto 466/2013, de 23 de diciembre, por el que se regula el Programa de Vivienda Vacía «Bizigune», en los casos en que la Dirección competente en materia de Derechos Humanos emita informe vinculante sobre la condición del beneficiario».

Artículo decimoquinto. Se modifican los apartados 2, 5 y 6 del artículo 37 del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo que quedan redactados en los siguientes términos:

«2. Podrán ser beneficiarias de la presente ayuda las personas físicas que padezcan acoso, amenazas o coacción vinculada a actuaciones terroristas conforme se acredite por el Departamento competente en materia de Seguridad.

5. La Dirección competente en materia de Derechos Humanos realizará de oficio los actos de instrucción necesarios para la resolución del expediente y, en todo caso, instará al Departamento competente en materia de Seguridad para que informe sobre la existencia de una situación de acoso, amenaza o coacción vinculada a actuaciones terroristas padecida por el solicitante. Dicho informe tendrá carácter preceptivo y vinculante y deberá evacuarse en el plazo máximo de 10 días.

6. La persona titular de la Viceconsejería competente en materia de Derechos Humanos dictará y notificará la resolución de la solicitud de ayuda en el plazo máximo de seis meses. Transcurrido dicho plazo sin haberse dictado y notificado la resolución, la solicitud se entenderá estimada por silencio administrativo, a los efectos previstos en el artículo 24 de la Ley de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas».

Artículo decimosexto. Se modifica la Disposición adicional segunda del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo.

En la Disposición adicional segunda del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo se sustituye la expresión «el Departamento de Interior, mediante Orden de su consejero» por «el Departamento competente en materia de Seguridad, mediante Orden de su consejero o consejera».

Artículo decimoséptimo. Se modifica la Disposición adicional tercera del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo.

En la Disposición adicional tercera del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo se sustituye la expresión «El Departamento de Interior» por «El Departamento competente en materia de Seguridad».

Artículo decimoctavo. Se modifica la Disposición final primera del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo.

En la Disposición final primera del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo se sustituye la expresión «al consejero de Interior» por «a la persona titular de la Departamento competente en materia de Seguridad».

Disposición final única. *Entrada en vigor*

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz,

El Lehendakari,
IMANOL PRADALES GIL

La consejera de Justicia y Derechos Humanos
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ